

Gure proiektuak hirietan dagoen zabor kutsadura murriztuko du. Gure plangintzaren bidez, zakarrontzi inteligentearen bitartez alegia, hirien hondakinen kudeaketa egokia lortzea izango da helburua. Horri esker, gizartearen osasuna ez da gehiago degradatuko eta emisio gutxiago egotearen ondorioz, epe luzera zaborrak eragindako kutsaduraren ondorioz gaixotasun gutxiago egongo dira. Bestetik, ingurumena ez da kaltetuta ikusiko eta zaborrak lurzoruan, uretan eta airean askatzen dituen gai toxikoak murriztuko dira.

Gure zakarrontzia plastiko birziklatuaz eta metalez egongo da eginda eta 4 konpartimendu izango ditu, plastikoa, papera, organikoa eta beira. Bakoitzak 30 cm-ko sakonera izango duen poltsa birziklatu bat izango du eta guztiz bete baino lehen, 5cm gelditzen direnean alegia, goialdean egongo den mugimendu sentsoreak poltsa jaso behar dela jakinaraziko du seinale baten bitartez, bezeroak ezarritako zentral bati.

Horretaz gain ontziak datu base batera konektatuta egongo da. Bertan ohiko produktuen propietate kimikoak igota egongo dira eta erabiltzaileak zakarrontzira zerbait botatzera doanean, leku egokira bota ezgero tapa ireki egingo da eta produktua birziklatu ahalko da. Okerrekora botatzen badu, aldiz, ezarritako sistemak ez dituen propietate horiek dituen produktua konpartimendu horretan sailkatu, tapa itxita mantenduko da. Produktua sisteman egongo ez balitz, konpartimendu horren QR kodea eskaneatu eta basean produktu berriaren datuak erregistratu dezakete.

Erosleak guri erosi nahi izango digute; izan ere, gure proposamena diseinu berritzaile bat eta birziklapena sustatzeko hainbat modu dakartza. Modu horietako bat Finlandian edo Dinamarkan erabili duen aldaketa mekanikaren antzekoa da: produktu berri bat eskaneatzen edo hondakin bat botatzen den bakoitzean ontziak dirua emango du bueltan, birziklapena saritzeko. Produktua hau plastikoa bada 20 zentimo emango ditu eta beria, papera eta organikoa 10 zentimo emango ditu, ticket baten formatuan. Ticket horri dagokion dirua jasotzeko, auzo bakoitzean egongo den makina batean sartuz dirua emango du.

Bozetoa:

